

## 1. Hasieran bazen Hitza



*Crowd taking photo of man wearing black sunglasses, Hanny Naibaho, @hannynaibaho (Iturria: <https://unsplash.com/photos/I11S9Phe78g>)*

→ *Irakurketari ekin aurretik entzuteko: That's Entertainment (The Jam, 1980) eta Going Underground (The Jam, 1980)*

Amaitu berri da gizonezkoen 2018ko Munduko Futbol Txapelketa Errusian, eta, estreinako balantzeak egiten hasita, bat datoz kazetarien kronikak eta tabernetako solasaldiak: ez Ronaldo, ez Messi, ez Griezmann, ez Mbappé, ez Hazard, VAR teknologia izan da txapelketako protagonista nagusia. Egin kontu VARak jauzi kualitatiboa ekarri digula: teknologia horri esker, errealitatearen irudikapen huts izatetik errealitatearen gaineko epaile izatera igaro da irudia.

VARarena, baina, izozmendiaren muturra baino ez da, dezente lehenagotik hasi baitzitzaion antzematen irudiaren agintaldiari. Ana Jakak kontu honi erreparatu zion 2014ko uda minean *Berria*-n argitaratutako artikuluan. Paisaia ikusgarria, lagun jatorra edota maitale ederra iruditara errenditzeko tema aipatu ostean (baina joera berri hori estigmatizatu barik: «Ez dut, beraz, halakorik kritikatzan, ez naiz nire lagun baten ustekoa, zeinentzat Facebooka, Instagrama eta abarrak harrokeria-feria diren. Harreman tresna berriak dira, harroputza denarentzat eta ez denarentzat, bakoitzari berea»), hitzaren aldeko apustua egin nahi lukeela zioen Jakak, irudi bizkorak ez bezala, berbak «pentsatu beharrekoak, barnetik pasatu beharrekoak» direlako. Egun batzuk geroago eta *Berria*-n bertan, gisa honetan mintzo zen Andoni Egaña (2014):

Lehendik zetorren joera zen, baina kondartzen ari den uda honetan gehien harritu nauena horixe da: jendeak argazkia nahi du (...). Oholtzatik beherakoan, sesioak izatera iristen ez diren *photocall* saioak egin izan ditugu sarritan uda honetan. Eta beti geratu izan zait ulertzen ez dudanaren sentimendua. Zergatik? Eta, batik bat, zertarako?

Unea preso harrapatzeari zentzurik aurkitzen ez ziola adierazita, kezka hau ere jarri zuen mahai gainean Egañak: «Irudimenerako da kaltegarri joera honek hainbat indar hartu izana. Irudimenak memoria baitu oinarri, eta memoriak egia, erdi egia eta egia erdia eta gezurra. Kontaketaren gainbehera ekar dezake den-dena den bezalaxe gordetze honek».

Lehendik zetorren joera horren ezaugarri nagusia, beraz, irudiaren omnipresentzia da. Acasoren arabera (2006), hiri handietako biztanleek egunean 800 irudi kontsumitzen dituzte batez beste, eta 3 ordu inguru ematen dituzte horretan. Hori horrela izanik, egile horrek dio (Acaso, 2006: 17) kasu gehienetan ez dugula guk errealitatetzat dugun hori bere horretan hautematen, beronen irudi bidezko errepresentazioa baizik, eta nahasmen horri deritzo «errealitatearen eta errepresentazioaren nahasmen-fenomenoa, hots, errealitatearen eta hipererrealitatearen arteko nahasmena»:

Errepresentazio bisualetan dugun konfiantza-maila handia dela eta, ia denok uste dugu Dorre Bikien eraispenaren lekuko izan garela, eta oso pertsona gutxi dira besteaz jabetzen direnak, hots, *han izan zirenek baino ez zutela hura ikusi eta gainerakook eraispenaren errepresentazio bisualak baino ez ditugula ikusi*. Zergatik diegu horrenbesteko fedea ikusmenarekin loturiko errepresentazioei? Gure umezaro minenetik sinetsarazi digutelako imajina *errealitatea dela*, eta, horrenbestez, automatikoki fidatzen gara imajinez (Acaso, 2006: 15-16).

*Hiper-errealitate* hori, beraz, kultura bisualean oinarrituta eraikitzen dela begitantzen zaio Acasori. Hari horri tiraka, pentsamendu kontzeptualaren garaitik irudiaren arora igaro garela dio beste pentsalari askok, eta horrek inplikazio zuzenak ei ditu bai kognizioan, bai beste hainbat arlotan. Zenbaiten ustez, bata bestearen atzetik abiada bizian pasaturiko irudi-sortez osaturiko egunerokotasunak pentsamendua bera, oztopatu ez ezik, galarazi egiten du. Esate baterako, honako hau dio Bergerrek (Acaso, 2006: 27n aipatua) propagandari buruz: «(...) etengabeko komunikazio-jario bat eskatzen du, gisa horretan, goiburu emozio-eragile edo utopikoekin, hausnarketa sistematikoki erreprimitu ahal izateko. Bere erritmoa bizkorra izaten da». Gubern- en iritziz (2013: 407), berriz, erritmo biziz doan irudi-segidaren aurrean mekanismo jakin bat aktibatzen da: Ahalegin Intelektual Gutxienekoaren eta Zentzumenak Saritzeko Joera Gorenaren Legea. Lege hori indarrean jartzearen emaitza, dio Gubernek, pentsamendurik eza da.

Laster ikusiko dugun moduan, ez da Gubern tankera horretako burutazioak dituen bakarra. Edozelan ere, kognizioari berari eragiten dion paradigma-aldaketa hori iragartzen lehenetarikoa, lehena ez bada, Marshall McLuhan kanadar pentsalaria izan zen, 1960ko hamarkada hasieran. Idazkera asmatu aurreko zibilizazioak ikertu eta gero, *Gutenberg Galaxia* bere lan klasikoan dio (ikus McLuhan, 1998a eta 1998b) idazkerarekin gizateria ikusmenaren esparrura lerratu zela. Gure garaira etorri eta koska bat gehiago estututa, telebistaren sorrerarekin mundua *herricka global* bihurtu zela iritzi zion ondoren.

McLuhanek, ordea, ez zuen egungo garai hiper-informatizatua ezagutu, garai bat zeinean, Baumanen arabera (Gostin, 2015ean aipatua), ikusle izatea ez den gutxi batzuen pribilegioa, guzti-guztiok eskuratu baitugu estatus hori, irudi-ugaritasun itzela tarteko. Bada, garai hiper-informatizatu honen hastapenetan, 1997an (Internet gizarteratzen hasi berritan, artean ikus-entzunezkoek Sarean lekuri apenas zuten garaian) idatzi zuen Giovanni Sartori *Homo Videns: Televisione e Post-Pensiero* saiakera. Lan horren hasieran bertan argi utzi zuen ez zebilela aro multimedia berria frenatu guran: «Jakin badakit luze baino lehen herrialde aberatsetako biztanleriaren gehiengoak edukiko duela etxean, telebistaz gain, Internetera konektaturiko mini-ordenagailua ere (...). Ez nabil saihetsezina dena gerarazi nahian» (Sartori, 1997: 12).

Zein zen orduan bere asmoa? Arrisku batez abisatzea eta iristear zen uholdea bideratzen saiatzea: «(...) hori baita nire diskurtsoaren muina: hau da, telebistak *homo sapiens*-aren kognizio-aparatua errotik eraldatu eta pobretzen duela» (Sartori, 1997: 17). Liburuaren amaiera aldera are indar handiagoz berretsi zuen bere hipotesia: «Irudien gainean eraikitako mundua hondamendia da animalia arrazoizkoaren *paidèia*-rentzat; telebistak eragin erregresiboa dauka demokrazian, beronen oinarria (eta, beraz, iritzi publikoa bera) ahultzen baitu» (Sartori, 1997: 146).

Zelan iritsi zen, baina, Sartori horrelako ondorioetara? Entzun dezagun italiar pentsalariaren arrazoibidea:

(...) ez bakarrik komunikazioa, baita pertsona animalia sinboliko modura ezaugarritzen duten pentsaera eta ezagutza bera ere *hizkuntzan* eta *hizkuntzarekin* eraikitzen dira. Hizkuntza ez da bakarrik komunikazio-ekintzaren tresna, pentsamenduaren tresna ere bada. Eta pentsamenduak ez dauka ikusmenaren premiarik (...)

Zibilizazioak idazkuntzarekin garatzen dira; ahozko komunikaziotik berba idatzirako bidaia horrek garatzen du hain zuzen zibilizazio bat (Sartori, 1997: 24-25).

Italiar pentsalariaren iritziz, alabaina, XIX. mendearen erdialdera ziklo berria abiatu zen, berrikuntza teknologikoez aldaketa handiak ekarri zituztelako: nabarmenena, komunikabide berriek distantziak murriztu egin zituztela. Haatik, horiek guztiek (telegrafoa, telefonoa eta irratia aipatzen ditu berak), prentsak berak bezala, hitza zuten oinarrian. Sartoriaren ustez XX. mendearen erdialdera gauzatzen da haustura, telebista Mendebaldeko herrialdeetan errotzen hastearekin batera. Hortik aurrera...

*ikustea* bera gailentzen zaio mintzairari (...). Eta, ondorio modura, teleikuslea gehiago da animalia *ikusle* bat animalia sinboliko bat baino (...). Eta hori errotikako norabide-aldaketa da; izan ere, gaitasun sinbolikoak *homo sapiens*-a animaliatik aldentzen duen bitartean, ikusmenean ardazte horrek bere antzina-antzinako gaitasunetara hurreratzen du; *homo sapiens*-aren espeziea kide deneko generora hurreratzen duela, alegia (Sartori, 1997: 26-27).

Begi-bistakoa da pentsamendu lineal-sekuentzialak garai hobeak bizi izan dituela, egia den moduan gaur egun irudiak blaituriko gizarte batean bizi garela eta irakurketa linealak bide eman diela funtzionatzeko modu intuitiboagoei. Haatik, gauzak ez dira oro har zuri edo beltz izaten, eta, horregatik hain zuzen, filosofo italiarraren beste baieztapen batzuek zalantza gehiago sortzen dituzte. Sartorik dio, adibidez (1997: 37-39), irudiarekin eta bideo-jokoekin hezitako umeak ez duela irakurtzen, eta, horren eraginez, nola ulermen-gaitasuna hala abstrakzio-gaitasuna eta pentsamendu kontzeptuala ahuldu egin direla.

Baieztapen biribilegiek arrisku horiek dituzte: ez ote dago bazterretan film eta telesaioak ikusi eta bideo-jokoetan jokatzear gain, irakurri ere irakurtzen duen ume zein gazterik? Ulermen- eta abstrakzio-gaitasunak zein pentsamendu kontzeptuala bera esentzia mudaezinak dira ala garaiekin batera eboluzionatuz doaz? Sartorik ukatu egiten du balizko sintesiaren aukera:

Tesiak dio, beraz, irakurtzen duen gizonak eta ikusten duen gizonak, idatzizko kulturak eta ikus-entzunezko kulturak, sintesi harmoniatsua ematen dutela. Perfektua litzateke hala balitz. Arazoaren konponbidea, hortaz, sintesi harmoniatsuren batean bilatu behar dugu. Alabaina, gertaerek oraingoz gezurtatu egiten dute, nabarmen gainera, irakurtzen duen gizona eta *homo videns*-a batuketa positibo batean uztartzen ari direnik. Bien arteko harremana, izan ere, «batuketa negatibo» batean gorpuzten da (denak galtzaile diren joko batean bezala) (Sartori, 1997: 50).

Beste kontu batez ere ohartarazten du pentsalari horrek. Bere ustez (1997: 115-116), irudiaren kultura apurtzen ari da arrazoiaren eta pasioen arteko oreka hauskorra, pasioaren mesedetan, eta, ondorioz, atzeraka ari da *homo sapiens*-aren arrazionaltasuna. Hori dela eta, irudiaren hegemoniaren poderioz, politika bera ere emozio eta sentipenetan oinarritzen da geroz eta gehiago; fenomeno horrek, ezelako konponbiderik ez ekartzeaz gain, bazterrak asaldatu eta arazoak are gehiago larriagotzen dituela irizten dio.

Bere ustez, gainera, eskaintza kulturik ezean, ikus-entzunezkoek sortzen dutena da *bite*-en abiadura eta kantitateari baino erreparatzen ez dion audientzia inkultua, audientzia hipermediatizatua, esperientzia zuzenaren aztarna (ezagutzara gauzak eginez iristearen esperientzia, funtsean) galdua duen ikus-entzulea. Horren guztiaren emaitza, haren irudiko, liburu honetako azken kapituluan berriro hizpide izango dugun *postpentsamenduaren garaia* da.

### **ZENTSOREAREN BEGIRADATIK BEGIRADA NARKOTIZATURA**

Esana dugun moduan, Interneten gizarteratze masiboa abiatu berritan plazaratu zituen Sartorik telebistari eta *homo videns*-ari buruzko bere hausnarketak. Urte batzuk lehenago, Neil Postmanek kritika zorrotza egina zion telebistak hauspoturiko entretenimendu-ereduari. 1985ean kaleratutako *Amusing Ourselves to Death. Public Discourse in the Age of Show Business* lanean bildu zituen Postmanek bere kritikak. Liburu horren genesisia, baina, 1984ko Frankfurtoko Liburu Azokan bilatu beharra dago. Urte horretako ekitaldian Postmanek George Orwellen *1984* eleberruari eta mundu garaikideari buruzko eztabaida-saio batean hartu zuen parte. Bertan defendatu zuenaren arabera, Aldous Huxleyren *Bai mundu berria*-k Orwellen *1984*-k baino hobeto islatzen zuen mundu garaikidea.

Zertan oinarritzen zen ordea Postmanen iritzia? Hitzalditik urtebetera argitara emaniko aipatu liburuan garatu zuen irakasle estatubatuarrak bere arrazoibidea. Denok ezagutzen dugu zein zen Orwellen amesgaiztorik beltzena, *1984* laudatu hartan gorpuztuta agertu zitzaigun hura: Anaia Handiak kontrolaturiko gizarte itogarria, zeinean gizakume guztiak ilunpean bizi ziren, euren nahiak, desirak, ilusioak eta pentsaerak guztiz zokoraturik, eguna joan eguna etorri Anaia Handiaren begia gainean zutela. Gizarte bat zeinean beldurra zen nagusi, gizarte bat zeinean informazio zehatza lortzeko aukera utopia huts baitzen. Beldurrean eta errepresioan oinarritutako gizarte horretan jakin-mina eta galderak egiteko gogoia erabat itota zituzten, Anaia Handiaren susmorik ez pizte aldera. Horra Orwellen fikzio distopikoaren muina.

Aldous Huxleyk, baina, beste modu batez pentsatzen zuen. Orwelli gutun baten bitartez adierazia zion bere beldurrak beste era batekoak zirela (ikus horri buruz Postman, 2005). Huxleyren ustez, etorkizunean ez zen Estatuaren errepresioaren beharrik izango informazioa ezkutatu edo kamusteko, Estatuak ez zuen horren

premiarik edukiko gizartea geldirik eta ikaratuta izateko. Izan ere, teknologia berriek bultzaturik, etorkizuneko gizarteak etenik gabeko informazio-jarioa jasoko zuen, segur aski hain kopuru handi eta jarraituan non gizarte hartako kideak azkenean guztiz narkotizatuta geldituko ziren, bakoitza bere egongelan geldirik, teknologia berriek sorturiko aparatuen aurrean, albiste-segida amaigabeari adi, soraiotuta eta aldi berean pozik, guztiz informatuta (eta lokartuta) sentituz.

Telebistaren alorrera etorrira, komunikabide bakoitzak (telegrafoa, telefonoa, irratia, telebista bera...) modu propioa duenez mundua era batera edo bestera erakusteko, Postmanen arabera (2005) gizartean nagusi den komunikabide batetik beste batera pasatzen garenean (hots, komunikatzeko modu berri bat gailentzen den bakoitzean), aldaketa horrek munduaren ikuspegi batetik bestera pasaraztea eragiten du. Segur aski, mezua bera ere komunikabide berriarekin batera aldatu egingo da.

Telebistari dagokionez, dio Postmanek, begien aurrean dugun aurkezleak pantailaren bestaldetik azaldutako albisteak egia edo gezur izateak ez du ezelako garrantzirik. Mezuaren benetakotasuna gutxienekoa da, hartzailearen nahiak asetzea da kontua. Bestela, beste aukera bat izan daiteke irudi eta mezuen bitartez kontsumitzailearen gogoan nahi, ohitura edo desio berriak sortzea. Batera zein bestera, produktuaren kalitatea bigarren maila batean geratzen da, garrantzitsuena kontsumitzailearen izaerara hurbiltzea baita. Beraz, irudia eta mezua kalitatearen aurretik doaz sekuentzia honetan.

Logika horri jarraiki, Postmanen irudiko politika bera ere (mezuak, programen eta hautagaien azterketak...) denbora-pasa huts balitz modura agertzen zaigu telebistan. Garrantzitsuena ez da nor izango den hautagai hobea: irudian oinarrituriko komunikabidea izanik, ikuslea irudiarekin seduzitu behar da; beraz, diskurtso luze eta abstraktuak alboratu egiten dira irudiaren mesedetan. Garrantzitsuena ikuslea ez *aspertzea* da, eta horretarako, ikusleak erakartzeko, irudia mimatzea eta ikuslea entreteniturik izatea da gakoa, eta, ahal bada, baita barrea eragitea ere, eta, batez ere, larregi ez luzatzea, teleikusleak beste ezeren aurretik entretenimendua nahi baitu bere aparatuan.

Hori horrela, ondorioztatu zuen Postmanek, inbidiaz hilko lirateke iraganeko tiranoak, ikusirik politika joko huts gisa, edo are, txantxa modura kontzebitzen denean, ez dagoela zentsura indarrean ezartzeko ezelako premiarik. Horrexegatik penatzen zen hain zuzen gure gizona, bere iritziz bera bizi zen artean AEBetan abian zen hezkuntza-egitasmorik handiena ez zelako sortu eskoletako ikasgeletan, etxe bakoitzeko egongelan baizik, telebista baten aurrean eta audientzia neurtzen eta gainbegiratzen zuen teknikari-talde handi baten kontrolpean.

Postmani begitantzen zitzaion, hortaz, telebistak unibertso ludiko bat sortu zuela, espektakulu bisual bat. Apurka-apurka kultura berria mamitu zuen eta, hori eginez, gure egunerokotasuna ere ikuskizunaren negoziara bultzatu zuen, ohartuki zein oharkabean. Izan ere, iruditzen zitzaion edozein gertakari aurkezterakoan

telebistak berau entretenimendu-formatuetatik jorrazera jotzen zuela. Arazoa ez zen, bere iritziz, telebistak entretenimendurako gai eta materialak eskaintzea, ez: arazoa zen telebistak gai guztiak entretenimenduaren ikuspegitik ematen zituela (den-dena txantxa bihurtzen zuela, alegia).

Postmanen ustez, telebista-enpresaburuek aspaldi ikusi (eta erabaki) zuten pentsarazteko edukiak ez zirela egokiak komunikabide horretarako. Hautu hori, gainera, segida logiko baten azken katebegia baino ez da, ezen estatubatuar pentsalariaren aburuz inprimategia asmatuz geroztik argudiatzeko modua estutzen eta konprimatzen joan baita, lehenengo testu labur batera (telegrafoa), gero irudi batera (argazkia), eta, azkenik, elkarren artean sarritan zerikusirik ez duten irudien sekuentzia bizkor batera (telebista-albistegiak). Haren ustez, lehenetasun nagusia ez zen jada informatzea. Telebistaren urrezko araua, diosku, ikuslea berari begira edukitzea da; ikuslea entretenitzea da orain lehenetasun nagusia<sup>1</sup>. Horregatik da hain garrantzitsu albistea ematerakoan berau espektakuluetan ohikoak diren musiken antzekoekin aurkeztea; horregatik dute aparteko garrantzia, era berean, aurkezlearen irudiak eta berba egitean erabiltzen duen doinuak. 45 segundo baino ez ditugu albisteko, gehiago luzatzeak ikuslea *aspertzen* baitu, eta 45 segundo horiei entretenimenduaren parafernalia erantsi behar zaie, ezinbestean.

Bere ideiei errematea jartze aldera, berriro Huxley eta Orwellengana bueltatzen da Postman. Huxleyren arabera, gogorarazten digu, aurrerapen teknologikoen garaietan aurpegi irribarretsu batek irudi gaiztoko ustezko etsai batek baino errazago ekarriko digu gizartearen gainbehera espirituala. Anaia Nagusiak ez gaitu zelatatzen bere borondatez: geuk begiratzen diogu berari, hala nahi dugulako. Kasu beraz, abisatzen du: herri baten kultur bizitza funtsean betiereko entretenimendu-erronda bat denean, elkarriketa publiko serioa umeen hizkuntza bihurtzen denean, herri oso bat ikusle pasibo bezala definitu ahal denean eta bere interes publikoak komedia-gai bilakatzen direnean, herri horren kultur heriotza benetako aukera bihurtzen da.

Horra zentsorearen paradigma orwelldarraren eta Huxleyk deskribaturiko begirada narkotizatuaren arteko aldea: Orwellek zioskun kanpotik etorritako indar bortitz batek azpiratuko gintuela; Huxleyk, aldiz, ikusi zuen jendeak azkenerako maitatu egingo zuela jasaten zuen opresio hori berbera eta gurtu egingo zituela bere pentsatzeko ahalmena zanpatzen zuten teknologia horiek (igarri-igarrian dago hemen Platonen *Haitzuloaren mitoa*-ren eragina).

Ez alferrik, liburuen gaineko balizko debeku batek eragiten zion Orwelli beldurrik handienetarikoa. Huxleyren beldurra, oster, erro sakonagoak zeuzkan: eta liburuak debekatzeko arrazoirik ez balego? Eta gizartean inork ez balu liburuei buruzko interesik? Bere beldurra zen, azken beltzean, gizarteak mundura begiratzea

1. Urte batzuk geroago, Van Cauwenberge, D'Haenens eta Beentjes-ek diote (Egaña, 2015ean aipatua), honen harira, gazteen komunikabideen kontsumoa aldatu egin dela, eta aldagetaren ezaugarri nagusia dela komunikabideak informatzeko baliatuzetik berauek entretenimendurako erabiltzera igaro izana.



etxeen egongeletako bakardadetik, telebistetako orakulu berrien begietatik, uste baitzuen guztiz narkotizaturik etengabeko espektakulari so dagoen banakoak bere pertsona-kondizioa saltzen duela entreteniturik eta pozik egotearen truke.

Aro demontre honi buruz egin gura dugu gogoeta lan honetan: Interneten, telefono mugikorren eta sare sozialen aroari buruz, ikus-entzunezko produktuek blaituriko aroari buruz. Sarrera honetara bildu ditugun autoreak, jabetuko zineten honezkerok, kritiko dira irudiaren nagusitasun eta omnipresentzia garaikidearekin; kritikoen zakuan sar genitzake halaber Debord (2010), 1967an deskribatu zuen ikuskizunaren gizartearekin, edota Verdú (2003) eta bere fikzio-kapitalismoa (hala deitzen dio 1990az geroztiko aroari), non dena den fikzio, dena espektakulu, dena teatro. Bada, hori bai, egile hauek ez bezala, irudiaren kulturarekiko hain iritzi ezkorra ez duen egilerik (zinema eta telebistaren atalak aletzerakoan aipatuko dugun Gubern, barbarako). Edozelan ere, lan honen asmoa ez da asmakizun berrien aurrean aldiro-aldiro sortu ohi diren eztabaidetan parte hartzea, ezpada ulertzen saiatzea zelan iritsi garen Irudiaren Aro honetara, zelan eragin duen ideien bilakaerak asmakizun teknologikoetan, eta zelan joan diren aldatzen pentsamendu-korrante nagusiak eurak irudiekin lan egiteko teknologiak garatu ahala. Alegia, deskribatzea zein trantsizio izan den pentsamendua, arrazoia, *logos*-a, hitza bera jainkotu zituen Argien Mendetik arrazoiaren nagusitasuna auzitan jarri, hitza aldaretik jaitzarazi, pentsamendua likidotu eta irudia gurtzera pasatu den postmodernitate<sup>2</sup>. Zelan egin da bide hori? Zelan eragin diote elkarri irudiak eta hitzak? Zalantzen amaiera ote dakar irudiaren gizarte hiperteknologizatuak? Zer isla izan du (eta du) prozesu horrek guztiak Euskal Herrian? Eta zer erronka dakar berekin?

---

2. *Logozentrismo*-tik *ikonozentrismo*-ra igaro garela diote, barbarako, Soriano, Perdomo eta Sánchezek (2014), gaineratuta hitzezkoak ez diren dimentsioak ere badituela lengoaiak eta, hortaz, lengoaia aztertzerakoan beste dimentsio horiek (irudi eta soinuena tartean) aintzat hartu beharko lirakekeela.



## IRAKURKETA OSTEKO HAUSNARKETARAKO



1. Zer arazo planteatzen du Giovanni Sartorik?
2. Zein da Neil Postmanek telebistari buruz zeukan iritzia?
3. Zertan bereizten dira, Postmanen iritiziz, Orwellen eta Huxleyren planteamenduak?

## ZUEN TXANDA



Osa itzazue 8 talde gelan. Talde bakoitzak gai hauetako bat aztertu:

1. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo sistema politiko-ekonomikoetan? Jarri adibideak (alde edo kontra).
2. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo hezkuntza-sisteman? Jarri adibideak (alde edo kontra).
3. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo komunikabideetan/publizitate-munduan? Jarri adibideak (alde edo kontra).
4. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo zientzian/teknologian? Jarri adibideak (alde edo kontra).
5. Antzematen duzue Huxleyren planteamenduaren aztarnarik gaur egungo sistema politiko-ekonomikoetan? Jarri adibideak (alde edo kontra).
6. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo hezkuntza-sisteman? Jarri adibideak (alde edo kontra).
7. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo komunikabideetan/publizitate-munduan? Jarri adibideak (alde edo kontra).
8. Antzematen duzue Orwellen planteamenduaren aztarnarik gaur egungo zientzian/teknologian? Jarri adibideak (alde edo kontra).

Zeuen artean eztabaidatu eta gero, gela guztiaren aurrean jarri taldeak binaka (1-5, 2-6, 3-7, 4-8) eta azaldu elkarri, gainerako ikaskideak entzule dituzuela, zeuen ondorioak eta alderatu bi pentsalari horien ikuspegiak.